

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Gautegiz-Arteagako Udala**

2020ko ekainaren 19ko 76/2020 Alkatezaren Ebazpenaren laburpena. Ebazpen horren bidez, enpresa eta autonomoentzako diru-laguntza zuzenen programa, COVID-19k eragindako osasun-krisiaren ondoren Gautegiz-Arteagako udalerrian establezimenduei eusten zaiela sustatzeko. BDNS (Identif.): 511745.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>):

**«ENPRESA ETA AUTONOMOENTZAKO DIRU-LAGUNTZA ZUZENEN PROGRAMA,
COVID-19K ERAGINDAKO OSASUN-KRISIAREN ONDOREN GAUTEGIZ
ARTEAGAKO UDALERRIAN ESTABLEZIMENDUEI EUSTEN ZAIELA SUSTATZEKO**

1. Helburua

COVID-19k eragindako krisi ekonomikoaren ondorioak arindu eta berehala jorratzea da deialdi honen helburua. Horretarako, diru-laguntza zuzenak emango dizkie COVID-19ren ondorioen zioz beren diru-sarrerak eta enpleguak murriztuta izan dituzten enpresei eta autonomoei, osasun-krisi honek izan dituen ondorio negatiboak arintzeko eta beren jarduera etetearen edo/eta establezimenduak ixtearen ondorioz sortu ahal izan diren gastu eta kalteei aurre egiteko asmoz. Hala, Gautegiz-Arteagako enpresei likidezia emango zaie, merkataritza-jarduerari eta ekonomiaren sustapenari eusteko orduan erraztasunak jartzen laguntzeko.

Interes publikoa babestu nahi da, eta, horretarako, enpresei eta autonomoei babesa eman, COVID-19k eragindako krisi ekonomikoaren eragina gutxitzeko eta, osasun-alarma amaitu denean, Gautegiz-Arteagako ekonomia ahalik eta arinen berpiztu dadila lortzeko. Horretarako, zuzenean jardungo da krisiaren eragina gehien jasan duten pertsona fisiko eta juridikoen gainean.

2. Aplikatu behar den araudia

Deialdi honek, oro har, honako arau hauek beteko ditu: Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (DLO); hura garatzen duen Araudia, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (DLOA); 2020ko ekitaldirako Udal Aurrekontua betetzeko oinarriak; ordezko moduan, urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (APAPEL); eta bere izaeraren ondorioz aplikagarria den beste edozein arau-xedapen.

Diru-laguntza hauek kudeatzean, bete egin behar dira gardentasunaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioak, bai eta helburuak betetzeko eraginkortasuna eta baliabide publikoak esleitu eta erabiltzeko efizientzia ere.

Bitarteko elektronikoak erabiliz izapidetuko da diru-laguntza, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen (APAPEL) 14.2. artikuluan ezarritakoaren arabera.»

Gautegiz-Arteagan, 2020ko ekainaren 19an.—Alkatea, Juan Félix Naberan Ozamiz